



LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2018ko URTARRILAREN 15eko EBAZPENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2017ko URRIAREN 20an IREKI ZIREN ORDEZKOGAIEN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA, BAITA IREKIERA HORREN ZERRENDAK IREKITA MANTENTZEARI EKINGO ZAIONA ERE.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko urriaren 20ko ebazpenaren bidez ordezkogaien aparteko zerrendak ireki ziren, Lanbide Heziketa, Hizkuntzen Irakaskuntzak eta Musikako Irakaskuntzak mailetan, ordezkapenak egiteko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 17. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

2017ko urriaren 23tik 27ra bitartean, biak barne, aurkeztutako eskaerak kontuan hartuta, zerrenda horietan onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin-behineko zerrenda argitara eman zen. Behin-behineko zerrenda horien kontra aurkeztutako erreklamazioak berrikusi eta akatsak zuzendu ondoren, onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrenda emango da argitara.

Zerrendak irekitzeko deialdi honek bukatu ondoren, aurreikusten da ezin izango direla deitutako espezialitateetan dauden lanpostuak betetzeko premiak betetzea bukatutako prozeduraren emaitzarekin. Horregatik, behar den denboran irekita jarraitu behar dute zerrendak, Ebazpen honen I. eta II. eranskinean ezarritako baldintzen arabera. Kasu honetan, eskaerak sarrera-ordenaren arabera onartuko dira.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduak 14. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea, Lanbide Heziketa, Hizkuntzen Irakaskuntzak eta Musikako Irakaskuntzak mailetan ordezkapenetako zerrendetan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda; hori Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko urriaren 20ko ebazpenaren bidez ireki ziren. Kanpoan utzitakoen kasuan, kanpoan utzi izanaren arrazoia edo arrazaiok adieraziko da/dira.

Bigarrena.- Zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera ordenatzen dira, eta alfabetikoki izen-deituren arabera, 2017/2018ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehazten duen letra finkatzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2017ko martxoaren 23ko ebazpenaren bidez argitara emandakoa, K letra izan zen.

Hirugarrena.- Onartutakoen eta kanpoan utzitakoen behin betiko zerrendak ondorengo tokietan kontsultatu ahal izango dira:



- www.irakasle.eus orrian / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Zerrenda-Irekitze Berriak” – “Eskaera-aldi itxia dutenak” (Prozesuaren Segimendua) estekan klik eginez.
- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-saila/> orrian / Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza- Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2017-10-20ko deialdia eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Bi kasuetan edozeinetan, aldez aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orrian lortu ahal izango dira, “Pasa-hitza eskuratu (edo berreskuratu)” estekaren bidez.

Ondoren, eta “Kontsulta pertsonalizatua” estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendatik at geratu diren pertsonen kasuan, “kontsulta pertsonalizatuen” atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoiaren xehetasun konkretua.

Laugarrena.- Irekita mantentzea 2017ko urriaren 20an ireki ziren aparteko zerrendetako ordezkogaien zerrendak (ebazpen honen I. eranskinean ezarritako baldintzen arabera). Irekita mantenduko dira beharrezkotzat jotzen den denboran, Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetan lanpostuak betetzeko premiei aurre egiteko, II. eranskinean ezarritako baldintzen arabera.

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira, azaldutakoaren arabera, 2018ko urtarrilaren 16tik hasita.

Bosgarrena.- Interesatuak gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean behin betiko ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aipatutako ebazpena argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita; hau da, 2018ko urtarrilaren 16tik otsarilaren 15era bitartean, biak barne.

**KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 15a

**I. ERANSKINA**

MAILA: LANBIDE HEZIKETA		
ESPEZIALITATEAK	KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK	HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
Makinak, zerbitzuak eta produkzioa	1559	HE 2, HE 1
MAILA: HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAK		
ESPEZIALITATEAK	KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK	HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
HEO Euskara	0753	HE 2
MAILA: MUSIKAKO IRAKASKUNTZAK		
ESPEZIALITATEAK	KODE ETA IKASGAIEN ZERRENDAK	HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA
Pianoa	0801	HE 2, HE 1
Biolontxelo	0803	HE 2, HE 1
Kontrabaxua	0808	HE 2, HE 1
Klarineta	0811	HE 2, HE 1
Kantua	0819	HE 2, HE 1
Organoa	0831	HE 2, HE 1
Perkusioa	0851	HE 2, HE 1
Musikaren historia	0858	HE 2, HE 1
Klabezina	0896	HE 2, HE 1
Orkestra	0922	HE 2, HE 1

II. ERANSKINA

ESKAERA

Eskaerak ON LINE aurkeztuko dira, ondorengo helbideetan:

- www.irakasle.eus / Irakaslegunea / “Administrazio-izapideak” eta “Zerrendak irekitzea” / “Irekita mantentzen diren zerrendak” estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza - Irakasleak / Ordezkapenatarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2017-10-20ko deialdia eta www.irakasle.eus estekan klik eginez.

Eskaera horiek Eusko Jaurlaritzako KZgunea zentro publikoen bidez egin ahal izango dira. KZgunea zentroen zerrenda eta haien kokapena helbide elektronikoko honetan daude: www.kzgunea.eus.

Eskaera betetzeko (www.irakasle.eus helbidean), erabiltzailea (NANa) eta pasa-hitza sartu beharko dira. Pasa-hitza izan edo gogoratu ezean, www.irakasle.eus orriaren bidez, “Pasa-hitza eskuratzea (edo berreskuratzea)” estekan, lortu ahal izango da.

Eskaera on-line erabat bete ondoren, itxi beharko da, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatuz, behar bezala balidatuta eta erregistratuta gera dadin. Eskaera ixten ez bada, “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” atala markatuz, eskaera hori ez aurkeztutzat joko da. Ondoren eskaeraren egiaztatzea eta “Aurkezten diren agirien zerrenda” inprimakia inprimatu ahal izango dira. Azken agiri hori, baldintza gisa eskatutako tituluak egiaztatzeke dokumentazioarekin, nortasun-agiri nazionalaren fotokopia sinplearekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskinean agertzen diren merezimenduekin batera, **aurkeztu beharko da bost laneguneko epean, eskaera itxi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita**, ondorengo tokietan:

- herritarrei arreta emateko Zuzenean bulegoetan (Bizkaian, Kale Nagusia 85, 48011 Bilbo; Gipuzkoan, Andia 13, 20003 Donostia; eta Araban, Ramiro Maeztu 10 behea. 01008 Vitoria-Gasteiz) aurkeztu ahal izango dira eskaerak.
- edo urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako gainontzeko tokietan, lege horren laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren kalterik gabe.

Lehen aipatutako dokumentazioak jatorrizkoa edo kopia konpultsatua izan beharko du; NAN-a salbu, fotokopia sinplearekin nahikoa izango dela.

Eskaerak eskatutako baldintzak beteko ez balu, interesdunari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko; horretarako 10 egun balioudunak izango ditu. Egingo ez balu, bere eskabidean atzera egin duela ulertuko da.

BALDINTZAK

Ordezko gaiak 2012ko abuztuaren 27ko aginduak (eta geroagoko aldaketek) 7. eta 8. artikuluetan xedatutako baldintza orokor eta espezifikoak bete beharko dituzte. Titulazioaren baldintzari dagokionez, espezialitate bakoitzerako eskatutako **titulazioa** egiaztatu beharko dute, 2012ko abuztuaren 27ko aginduak Espezialitate eta titulazioen taulari buruzko III. Eranskinean



xedatutakoaren arabera, zehazten diren ondorioekin. Taula hori kontsultatzeko (gaurkotuta, egindako aldaketak barne) [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_cand_sust_normativa/eu_def/adjuntos/II I Eranskina_04_2017_e.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_cand_sust_normativa/eu_def/adjuntos/II_I_Eranskina_04_2017_e.pdf) jo beharko da.

Halaber, **prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren** espezialitatea izatea egiaztatu beharko da Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntzen Irakaskuntzetako eta Lanbide Heziketako espezialitate guztietan.

Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza (abenduarien 27ko ECI/3858/2007 Agindua) egiaztatuko da gaitasun pedagogikoaren ziurtagiriaren, espezializazio didaktikoaren tituluaren edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen dituen Masterraren titulu ofizialaren bidez.

2008/2009ko ikasturteak bukatu aurretik bi ikasturte osotan, edo 12 hilabete jarraian edo etenekin, behar bezala baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, haien irakaskuntza-espezialitateak azaroaren 8ko 1834/2008 errege dekretuan arautzen diren maila eta irakaskuntzetan, irakatsi dutela egiaztatzen dutenei, irakaskuntza hori aipatutako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide gisa aitortuko zaie.

Halaber, Maisu edo Maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorraren irakaslearen, Lehen Hezkuntzako Maisu edo Maistraren, Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentziaturaren tituluak, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa jasotzen duen lizentziatura edo titulazio baliokidea, dituztenei baldintza hori izatetik salbuetsiko zaie, titulu horiek 2009ko urriaren 1a baino lehenago lortu badituzte.

Lanbide Heziketako zerrenden kasuan, haien titulazioaren ondoriozko arrazoiengatik abenduaren 27ko ECI/3858/2007 aginduak araututako Masterreko ikasketara sartu ezin diren pertsonak, hots, maila horretako irakaskuntzetan klasea ematearen ondorioetarako baliokidetzat jotako titulazio bat dutenek (otsailaren 23ko 276/2007 errege dekretuaren VI. Eranskina, BOE, 2007-03-02), maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak, 100.2. artikuluan eskatutakoaren baliokidea den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutela egiaztatzeko ziurtagiri ofizial bat aurkeztu beharko dute. 2014ko irailaren 1a baino lehenago bi ikasturte osotan, edo hamabi hilabetetan jarraian edo etenekin, behar bezalako baimendutako irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan irakatsi izana egiaztatzen dutenek ez dute prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza bete beharko.

ADIN TXIKIKO BABESA

Adin Txikikoa Juridikoki Babesteari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 lege organikoko 13 artikulua 5 atalean xedatutakoaren arabera (hur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 legearen bidez sartua), sexu-askatasunaren eta osotasunaren kontrako delituen batengatik -sexu-erasoa eta abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa, adingabeen galaraztea eta gizakien trafikoa sartzen dira delitu horietan-, sententzia irmoaren bidez zigorrik jaso ez izana izango da adin txikikoekin ohiko kontaktua izatea dakarten profesioetan aritzeko baldintza. Horretarako, sexu-gaizkileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztu beharko da, baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, edo on-line eskabidean erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da, Hezkuntza Saila Sexu-delitugileen Erregistro Zentralean datuak kontsultatu ahal izateko esanbidezko baimena ematen diona; kasu horretan, "Adingabearen babesa" atalean dagoen laukia markatu beharko da.



Ordezko gaiak, lanpostu bat betetzeko deitzen zaienean, ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute edo Sailak kontsulta egingo du (on-line eskaeran adierazpen arduratsua, datuak Sexu Delitu Egileen Erregistro Zentralean kontsultatu ahal izateko berariazko baimena sartuko duena, bete badu). Adierazitako delituengatik zigorra jaso badute edo aipatutako ziurtagiria aurkeztu ez badute (kontsultatzeko baimena eman ezean), prozedura honetan parte hartzeagatik izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

ESKAERAREN ORDENA ETA EGOERAREN KONTSULTA

Eskaerak sarrera-ordenaren arabera onartuko dira eta eskatzaile bakoitzak haien egoera (baloratzearen zain, onartuak edo ez onartuak) kontsultatzeko aukera izango du; horretarako, kontsulta pertsonalizatuaren atalean egin dezake, erabiltzaile eta pasa-hitza sartuz. Eskaera onartu gisa agertzeak ordezko gai ordezkapenak egiteko deitu ahal izatea ekarriko du, onartutako eskaeren ordena kontuan hartuta, aurkeztu diren data eta orduen arabera eta, betiere, urteko birbaremazio prozesuaren ondoriozko zerrenda orokorretan ordezko gai libreak ez badaude.

BIRBAREMAZIOA

Geroago, merezimenduen baremoaren arabera (2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskina) ordenatuko dira eskaerak, urtero aurrera eramaten diren birbaremazio prozesuetan.

Ikasturtean aurkezten diren eskaera berriak ikasturte bakoitzaren birbaremazio prozesuan sartuko dira, prozesua tramitatzeko epeen arabera prozesu horri hasiera ematen dion Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenean zehazten den azken egunera arte. Ebazpen horretan zehazten den egunaren ondoren aurkeztutako eskaerak hurrengo ikasturtean birbaremazio prozesuan sartuko dira.

Birbaremazio prozesu horren barruan, zerrenda orokorrera sartzeko eskatutako baldintzak betetzeagatik zerrenda horretan dauden pertsonen zerrenda emango da argitara, bai eta baldintzak ez betetzeagatik zerrendan egon ezin direnak ere. Zerrendara sartu ez direnek, ados ez badaude, izango dute prozesuaren fase bakoitzean behar diren erreklamazioak edo errekursoak aurkezteko aukera.